



# GOIZPARKIJA

IRALA-LENENGOKUA



ILDA EGUANA JAGI TA ITZ-EGITEN ASI ZAN,  
ETA JOSU'K BERE AMARI EMON EUTSON

*Aldi atan: Naim eritxon uri batera johan Josu, ta beragaz jozazan bere ikasliak eta lagun asko.*

*Eta uri-atera uferatu-orduban, ildako bat ataraten eben iortzi edo luferatuteko. Ildakua seme bakara zan eta bere ama alarguna; eta beragaz lagun asko johan.*

*Jauna'k ikusi ebanian, beratzaz erukitu zan, eta esan eutson: «Ez negatik egin».*

*Eta uferaturik, zealduari oratu eutson: eta eruaten ebenak alde-egin eben. Eta esan eban: Gaste, jagi adi, nik aginduten dauskat.*

*Ilda eguana jagi ta itz-egiten asi zan, eta Josu'k bere amari emon eutson.*

*Gustijok ikaratu ziran, eta Jaun-goikua goralduten asi ziran, esanaz: Iragarle andi bat softu da gure artian; eta Jaun-goikua'k bere erija ikeritu dau.*

ZENBAKI ONETARAKO IDAZKAI LAREGI ARTU DOGU.

OBE DA, TA ESKARIK ASKO GUSTIJAI.

OREGATIK EZIN-IXAN DOGU ZENBAKI ONETAN GUSTIJOK  
SARTU; BAÑA URENGUAN AGERTUKO DIRA, JAUN-GOIKUA

LAGUN.

BERIA IKUSIKO EZTAUNA, BA, EZ LARITU; IKUSIKO DAU.

ONGUAN LEZ JARATU OUSTIJAK ETA IKUSIKO DOZUBE

ZELAN ALKARATUTEN DOGUN



## ¡ENARATXUA!

¿Nora zuaz enaratxua  
egaiz egaizka?

¿Nora zuaz zure kabiya  
utsik lagata?

Itxaso-ziaf  
ofen ufuti,  
nigandik nora  
zuaz igesi?

Enaratxua:  
uraz-andi  
baldin ba-zuaz  
albistari;  
an esan eutzko-  
-anayeri...  
Ama dagola  
gustiz eri.

TENE.

## AITIAREN, ETA SEMIAREN...

*Au ezta ipuna gero, egi-egija baño. Neuri edestu eusten letxe edestuko dautset EUZKO-DEYA'ren irakurliai.*

*Euzkadi'ko eri-kozkor baten bixi da gixon zintzo-zintzua, baño arija baxen goa dana.*

*Gixon au pasietan ebiñan aratsalde baten etiko abade ta beste lagun bategaz.*

*Bero andija zan-eta, abadiak kapela erantsi eban, buruba pizkat otzifuteko.*

*Lagunak be, orixe ikusifa, apropos kendu eban faxapela.*

*Orduban gure goa, Angelus joten ebelakuan, txapela erantsi ta Aitiarenka asi zan.*

*Esan-biafik eztago zelako bate-algarak egin ebezan gure gofaren lagunak.*

AMILGAIN.

## FERROL'DIK

¡Gora Bilbao'ko «Euzkeltzale-Bazkuna»!

Geldifu-barik zabilaz gau ta egun Euzkadi maifia goralduten. Eztira kenduko gure goguetatik lenengo alditan zubek egin dozubezan jai ospatsubak Euzkadi'ko uri ta basefijetan. Baña orain dirautzuket uri txiki bat dagola nire eritik urian «Euzkeltzale-Bazkuna»'ko abeftzale mordo baten biafian. Eta uri ori da Mundaka.

Ia ba, euzkotañak. Ez ikaratu ta guazan, lotsarik ez bildufik-bage, Mundaka'n olako jai bat egitera. Eta irakurten dodanian gure izpafingijetan Mundaka'n jai ori egingo dala, ni be emendik juango naz bertara. Eta an, gustijok bostekua estuturik, esango dogu batera: «¡Gora Euzkadil!»

Enbeita'ri:

Esaistazu, Enbeita,  
Berton EUZKO-DEYA'n  
Prestauko intzekezun  
Juteko Mundaka'ra  
Suburdi batian.

MADARIAGA'TAR IYIDOR